



BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Banaketa eta komunikazio kanala, balorezko proposamenak bezeroarengana ailegatu dadin, gure enpresa nola komunikatzen den eta bere merkatu segmentuetaraino nola iristen den deskribatzen du.

• Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroarengana helarazteko?

Gure produktu (aldizkaria) bezeroarengana helarazteko Interneta erabiliko dugu, eta horretarako; web gune bat sortuko dugu. Baina modu hau gehien bat 16-45 urteko merkatu segmentaziorekin erabiliko dugu, eta 46-70 urteko bezeroekin berriz, postontzia, hau da, aldizkaria formatu fisikoan bidaliko diegu.

1. Pertzepzioa

Gure bezeroak gure existentziaz jabetzeko, irratiaz baliatuko gara, gure aldizkariak publizitatea egiteko. Irratiaz gain konferentziak egingo ditugu non, interesa duten pertsonen, haien helbidea eta korreo elektronikoak eskatuko diegun, haiekin komunikatu ahal izateko.

2. Ebaluazioa

Bezeroak, gure balorezko proposamena ebaluatzeko, web gunearen bitartez haien iritzia eman dezakete. Aldizkaria formatu fisikoki erosten duten pertsonen aukera izango dute, gmailaren edo telefonoaren bitartez haien iritzia emateko.

3. Erosketa

Erosketa fasean (salmenta), gure bezeroek aldizkaria erosteko, sozioak egin daitezke eta hilabetero kuota bat ordaindu edo web gunearen bitartez albistea erosi dezakete.

4. Entrega

Behin erosketa eginda, web gunean albiste osoa irakurtzeko aukera izango dute, eta sozioak eginez gero, postontzira aldizkaria iritziko zaie.

Luisa Betancourt, Mabel Sanchez eta Estibaliz Lasa.

5. Salmenta ondorengoa

Aldizkaria dutenean, eta zerbait gehiago nahi izatekotan web gunearen, telefonoaren edo gmailearen bitartez komunikatuko gara.

Prozesu guzti honetaz guk bakarrik arduratuko gara, hau da; kanala zuzena erabiliko dugu eta modu horretan etekin guztiak guretzat izango dira.